

1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-esparrua
2. artikulua.– Oinarrizko Hezkuntzaren irizpide orokorrak.
3. artikulua.– Oinarrizko Hezkuntzaren antolakuntza
4. artikulua.– Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak.
5. artikulua.– Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen irteera-profila

XEDATZEN DUT:

## I. KAPITULUA

### XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. artikulua.– Xedea eta aplikazio-esparrua.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzako curriculumak finkatzen du dekretu honek, eta haren ezarpena, ebaluazioa eta garapena xedatzen du. Hala ere, betetzekoa izango da oinarrizko arautegia, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituenak.

2.– Lehen Hezkuntzak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzak osatzen dute Oinarrizko Hezkuntza, eta bizitza osorako hezkuntzaren derrigorrezko etapak dira.

3.– Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe guztietan aplikatuko da, baldin eta Lehen Hezkuntza eta/edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen badute.

#### 2. artikulua.– Oinarrizko Hezkuntzaren irizpide orokorrak.

Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 16. eta 22. artikuluetan agertzen diren printzipioak ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzak honako irizpide hauek ditu oinarri:

a) Oinarrizko Hezkuntza abiapuntua da pertsonen bizialdiko etapa guztiak hartzen dituen hezkuntza garatzeko. Horiek horrela, haren helburua da gizakiaren gaitasunak ahalik eta gehien garatea dimentsio guztietan, gizabanako eta pertsona aktibo gisa, garapen sozialarekin eta ingurumenaren garapen jasangarriarekin konprometituta.

b) Oinarrizko Hezkuntza da gazteak helduarorako prestatzeko aldi komuna eta derrigorrezkoa. Bertan ezartzen dira bizialdi osorako oinarri sendoak, estereotipoak eta ezarritako ereduak gaindituz, beren bizitzak zentzuz gida ditzaten, beren helburuak hauta ditzaten, beren aukeren, egungo

eta etorkizuneko premien eta pertsonak artatzearen ardura har dezaten, eta gizartean txerta daitezen, modu aktiboan, kritikoan eta arduratsuan parte hartuz eta beren nortasuna osoki garatuz.

c) Oinarrizko Hezkuntzak gizakien ahalmenak osorik garatu behar ditu –Haur Hezkuntzan hasita–, eta bizitza osoan zehar behar diren oinarrizko konpetentziak eskuratzea, errealizazio eta garapen pertsonalerako, herritar aktiboak izateko, gizarteratzeko eta enplegua lortzeko.

d) Oinarrizko Hezkuntza, derrigorrezkoa izanik, eskola-komunitate guztiari dago zuzenduta, eta orientabidea ematen du garapen pertsonalean, familiarrean, soziokulturalean, akademikoan eta profesionalean. Oinarrizko Hezkuntzaren ikasleen potentzialtasun guztiak garatzen lagundu behar du, haietako bakoitzaren ahalmenei erreparatuta.

e) Oinarrizko Hezkuntzak pertsona guztien hezkuntza-eskubidea bermatu behar du. Horrenbestez, zuzentasunaren eta justizia sozialaren ildoan, hezkuntzak aukera berdinak eskaini behar ditu, bazterketarik egin gabe –ezaugarri pertsonalengatik edo sexu-orientazio, kultur nortasun edo generoagatik–, eta gaititu egin behar ditu desberdintasun ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta pertsonalak. Hezkuntza-zerbitzu guztiak eskuragarri egotea ere bermatu behar du, eta laguntza eta babes zehatzak eman behar ditu oinarrizko baldintzak berdinak izan daitezen eta ikaskuntza unibertsala izan dadin. Bai Administrazioak eta hezkuntza-arduradunek, bai hezkuntza-komunitateko profesionalak zein kideek inklusio-printzipioa izan behar dute beren jardueren ardatz, eta hezkuntza muinbakarra eta banakakoa sustatuko dute oinarrizko eta derrigorrezko hezkuntza amaitu arte.

f) Zuzentasunaren, elkartasunaren eta aukera-berdintasunaren aldeko eskola inklusiboaren baitan, Oinarrizko Hezkuntzak lehenetsi egingo du ikasleek oinarrizko konpetentziak eskuratzea, ikasleen aniztasunari arreta ematea –gaitasun intelektual handiko ikasleak barne–, gertatu bezain laster hautematea eta tratatzea ikasteko zailtasunak, ikasleei tutoretzak eta hezkuntza-orientazioa ematea, eta familiekiko harremana. Horren guztiaren helburua hezkuntza-ingurune egokia eraikitzea eta ikasteko oztupoak ezabatzea da.

g) Oinarrizko Hezkuntzak pertsonaren garapen integralari laguntzen dio, alde batera utziz sexuaren araberako estereotipoak eta rola, bai eta bereizkeria mota oro ere, generoaren eraginik gabeko orientazio akademikoa eta profesionala bermatuz. Horretarako, ikastetxeek emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko dute alor guztietan: curriculum, antolaketa eta abar.

h) Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hezitzaileak eta orientatzaileak dira; hau da, irakasle guztiak dira hezitzaile, elkarrekin koordinatuta aritzen dira nor bere etapatik eta curriculum-arlotik, heziketaren arduradunekin lankidetzan, batik bat familiarekin, baina baita beste instantzia eta eragile sozializatzaile eta hezitzaile batzuekin ere.

i) Eskolako bizikidetzak egokia izango bada, hezi beharra dago bake positiboan, giza eskubi-deetan, justizian, elkartasunean eta inklusioan. Hezkuntza-eskumenak dituen sailak Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuak sustatuko ditu –bakearen kulturari eta genero-indarkeriaren prebentzioari buruzkoak–, kulturen, generoen, eta sexu-orientazioaren aniztasuna eta gizonen eta emakumeen arteko aukera-berdintasuna, elkarrizketa, garapen emozionala, gatazkak modu baketsuan konpontzeko estrategiak, eta hezkuntza-komunitateko kide guztien eskubideak eta betebeharrak.

j) Ikastetxeek, ikasleak onartzeko araudiak aurerikusatukoaren arabera, aukera-berdintasuna sustatuko dute eskolaratzean eta eskolako ibilbidean: heziketa-aukera berdinak eskainiko dizkiete haur eta nerabe guztiei, eta, helburu horrekin, bereizketa positiboa egingo dute, modu inklusiboan, zailtasun ekonomikoak, sozialak, kulturalak edo pertsonalak dituztenen alde, hezkuntza-prozesuan laguntzeko eta eskola-porrotari aurre hartzeko.

k) Oinarrizko Hezkuntzako jakintza-arloek eta ikasgaiek euskal curriculuma txertatuko dute curriculum propioan, eta oinarrizko kompetentziak dimentsio guztietan garatzen lagunduko dute.

### 3. artikulua.– Oinarrizko Hezkuntzaren antolakuntza.

1.– Oinarrizko Hezkuntza derrigorrezkoa eta doakoa da. Hamar ikasturte ditu, normalean sei urtetik hamasei urtera egiten da, bi etapatan banatuta: lehen sei urteek Lehen Hezkuntza osatzen dute, normalean 6 urtetik 12 urtera; ondorengo lau urteek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osatzen dute, normalean 12 urtetik 16 urtera.

2.– Lehen Hezkuntza ikasturtetan eta arlotan banatzen da. Pedagogiaren eta antolakuntzaren autonomiari jarraituz, ikastetxeek Lehen Hezkuntzako sei ikasturteak ziklotan antolatzea erabaki dezakete beren Hezkuntza Proiektuan. Hezkuntza-eskumenak dituen sailak bi zikloko curriculum-proposamena eskainiko du, aurrenekoa lehen, bigarren eta hirugarren ikasturteak; eta bigarrena, berriz, laugarren, bosgarren eta seigarren ikasturteak. Proposamen hori orientagarria da ikastetxeentzat.

3.– Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ikasturtetan eta ikasgaitan dago antolatuta, diziplinen arteko lotura eta koordinazioa zainduz, eta arreta berezia jarriko du ikasleen hezkuntza- eta lanbide-orientazioan. Laugarren mailak izaera propedeutikoa izango du. Halaber, orientagarria izango da, derrigorrezko hezkuntzaren osteko ikasketak egiteko zein lan-munduan sartzeko.

4.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak Oinarrizko Hezkuntzarako bidea erraztuko die hezkuntza-sistema titulaziorik eskuratu gabe utzi duten gazteei eta helduei, eta, horretarako, irakaskuntza modu malguak baliatuko ditu.

5.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak bermatuko du hezkuntza-premia bereziak dituzten eta derrigorrezko eskolatzealdia amaitu ondoren Oinarrizko Lanbide Heziketara sartzen ez diren ikasleen hezkuntza-eskubidea, Helduarora igarotzeko programen eskaintzaren bidez.

### 4. artikulua.– Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak.

Honako hauek dira Oinarrizko Hezkuntzaren xedeak:

a) Kulturaren oinarriak eskuratu ahal izateko alfabetatzea, dimentsio guztiak orekatuz, euskaldunetik unibertsalera.

b) Ikasitakoa erabiltzea, modu kontzientean eta integratuan, bizitzaren arlo guztietako egoerak eta problemak konpontzeko eta hobetzeko aukera berriak sortuz, pertsona maila guztietan garatu ahal izan dadin.

c) Ikasleak helduarorako eta bizitza oso baterako prestatzea, gizabanako diren aldetik; bizikidetzaren harmoniatsua garatzearekin eta gizarte justu eta zuzenago bat eraikitzearekin konprometituak; eta natura zaintzearekin eta garapen jasangarriarekin konprometituak.

d) Goragoko ikasketak egiteko nahiz lanean hasteko prestatzea, berme osoz, eta bizitzan zehar etengabe ikasteko eta prestatzeko motibatzea.

### 5. artikulua.– Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen irteera-profila.

1.– Oinarrizko Hezkuntza baliagarria izango da ikasleek gara ditzaten Oinarrizko Hezkuntzako irteera-profil orokorraren helburuak lortzeko behar dituzten gaitasunak.

2.– Ikasleek Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntza amaitzerako lortu behar dituzten oinarrizko kompetentziak dira ikasleen irteera-profil orokorra, hezkuntza-xedeak betetzeko eta bizitzaren

esparru eta egoera guztietan moldatzen jakin dezaten. Ikasleen irteera-profil orokorra agertzen da dekretu honen II. eranskineko Oinarrizko Hezkuntzako curriculumaren Planteamendu orokorrean.

3.– Irteera-profil orokorra ebaluatzeko modua zehazten da Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irteera-profilean.

4.– Ikasleen irteera-profila zehazten da Lehen Hezkuntzako jakintza-arloen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasgaien etapako helburuetan. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen irteera-profilak azaltzen dira dekretu honen II. eranskinean; zehazki, Oinarrizko Hezkuntzako curriculumaren berariazko ikuspegian.

5.– Hezkuntza-eskumenak dituen sailak, irteera-profila erreferentetzat hartuta, zeina ikasle guztientzat berdina baita, adinako aholkularitza emango die ikastetxeei, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irteera-profilak beren ikasleentzat moldatu ahal izan ditzaten ikastetxearen proiektu instituzionalen barruan.